

LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2021eko APIRILAREN 30ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO EZ OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2021eko apirilaren 30ean, goizeko 10.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira Telematikoki eginiko bilkura honetan.

ZINEGOTZIAK:

Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado
Maialen Alonso Labandibar
Aitor Beistegui Fiallegas zinegotzia

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Vicente Garcia Momblona eta Jesus Maria Tejada Cantero.

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

1. Larraulgo Tokiko Energia Elkartearen Eratzeari buruzko Akta LARRAUL/Constitución de la Asociación Larraulgo Tokiko energia komunitatea-TEK LARRAUL.

...//...

LEHENENGO PUNTUA


LARRAULGO TOKIKO ENERGIA ELKARTEA ERATZEA-TEK LARRAUL

Ikusita, Larraulgo Udalak, beste pertsona fisiko edo juridiko batzuekin batera, "LARRAULGO HERRIKO ENERGIA KOMUNITATEA-TEK LARRAUL" ELKARTEA eratu nahi du. Elkarte horren estatutuak elkarte horien ordezkariak egingo duten Fundazio Bilkuran onartuko dira.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, aho batez

ERABAKI DU:

LEHENENGOA: beste pertsona juridiko edo fisiko batzuekin batera, "LARRAULGO TOKIKO ENERGIA KOMUNITATEA-TEK LARRAUL" izeneko ELKARTEA eratzeari buruzko Akta. Elkarte horren estatutuak elkarte horien ordezkariak egingo duten fundazio-bilkuran onartuko dira.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Maria Teresa Arana Perez andrea Larraulgo Udaleko alkate izendatzea, haren izenean jarduteko, eta elkartzeko nahia adieraztea, aurreko akordioan aipatutako elkartearen eratzeko beharrezkoak diren erabakiak hartuz.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 10:30 orduak direnean Alkate andreak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.